

**KORONABIRUSAREN ONDORIOZ, HERNANI ETA USURBILGO HONDAKINEN ATEZ
ATEKO BILKETAREN EGOKITZAPENA**

Hernanin eta Usurbilen atez ateko bilketa egiten da eta gomendio guztien arabera COVID19arekin gaixotuta daudenen hondakin guztiak eta haren zaintzailearen erabili eta botatzeko materialak (eskularruak zapiak, maskarilla, etab.) etxeko gainontzeko hiri-hondakinekin batera ongi itxitako poltsa baten barruan errefusa moduan tratatu behar dira.

Horren ondorioz bi udalek honako neurriak hartu dituzte:

Hernaniar eta Usurbildarrei eskaintzen zaien **ATEZ ATEKO HIRI HONDAKINEN BILKETA MANTENDU** egiten da, eta gaikako bilketa era arruntean egiten jarraituko da.

COVID19arekin gaixotuta edo/eta berrogeialdian zauden etxe batean baldin bazaude, dagokion **UDALAREKIN** jarri harremanetan hurrengo telefonoetan zure etxeko hondakinak zer-nola kudeatu behar diren argibideak jasotzeko:

- **HERNANI: 668 841 774 edo 943543016.**
- **USURBIL: 669 874 022**

GAIXOTUTAKO EDO/ETA KUARENTENAN DAUDEN ETXETAKO HONDAKINEN BILKETA PROTOKOLOA aktibatu dute bi udalek, hurrengo prozedurarekin:

ZER

Etxetako hondakinak ministerioak ezarritako prozeduraren baitan jasoko dira. (3 poltsa beharrezkoak izango dira) (ikus beherago bestelako informazioa)

NOLA

Udal arretarako zerbitzuan, gaixotutako edo/eta berrogeialdian dagoen etxeko bizilagunei, ministeriotik jasotako irizpideak azalduko zaizkie, etxeko hondakinak behar bezala kudeatzeko.

BERTAN BEHERA GERATU DIREN ZERBITZUAK

Hondakinaren bestelako bilketei dagokionez, hurrengo zerbitzuak eten egiten dira, bestelako berririk ez dagoen bitartean.

- Hernaniko eta Usurbilgo garbiguneak (San Markok Mankomunitateak horrela erabakita).

- Bi udalerrietan astero egiten den boluminoso eta altzarien bilketa pertsonalizatua

Bitarte horretan etxean gaika egoki jasotzea eskatzen dute bi udalek, berriz ere zerbitzua abian jarri bitartean.

BESTELAKO INFORMAZIOA

Momentu honetan, hiri hondakinen kudeaketari dagokionez, hurrengo informazioa kontsultatu ahal izan da.

Trantsizio ekologikoko ministerioak argitaratutako gomendioak.

<https://www.miteco.gob.es/es/prensa/ultimas-noticias/el-miteco-y-la-federaci%C3%B3n-espa%C3%B1ola-de-municipios-y-provincias-circulan-unas-recomendaciones-sobre-la-gesti%C3%B3n-de-residuos-dom%C3%A9sticos-procedentes-/tcm:30-508148>

Europa mailan, COVID19 birusa dela eta, hainbat estatutan hiri hondakinak nola kudeatzen ari diren laburbiltzen duen ACR+ elkartearen (Association of Cities and Regions for sustainable Resource management) albisteak.

<https://acrplus.org/en/municipal-waste-management-covid-19>